



EUSKAL IRUDIGILEAK

ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE ILUSTRADORES DE EUSKADI

INFAME & CO

Elkarrizketa eta itzulpena: Alazne González

*EO = Elkarrizketatzailearen Oharra

Kike Infame edo Infame & Co (Bilbo, 1975), irudigilea eta komikilaria (*Morirse en Bilbao, Z aldizkaria...*). Horretaz aparte, *bilbao24horas.com* webgunean idazten du, baita **Euskal Irudigileak (Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionala) antolatzen dituzten ekintzak antolatzen lagundu ere. Gainera, **Getxoko Komiki Azokaren** mintzaldietako koordinatzailea da. Txikitan *Spirit* (**Will Eisner**) bezalako komikiekin gozaten bazituen, helduaroan **Rubén Pellejero, Elena Odriozola, El Roto, Federico del Barrio, Taniguchi**-ren... lanen zalea da.**

Lur orotariko artista zara. Alde batetik, argitaletxe, fanzine, aldizkarietarako marrazten duzu. Bestalde, ilustrazio eta komikigintzaren artea zabaltzen laguntzen duzu. **Zerk eraman zintuen dibulgazio mundura?** Komikiaren mundua beti gustukoa izan dut. Mutiko bat nintzenean, lagunekin batera irrati libre ezberdinetan programak egiten nituen, beti ere, komiki az hitz egiten (neure pasioa). Elkartearen sorreratik [EO: Euskal Irudigileak] beti izan dugu amets bat: Café Gijón-ean poetek ematen zituzten mintzaldien ildokoa egitea irudigileekin. Aukera eman zenean, **Dani Maizek** zeregin horren ardura eman zidan, eta gero eta gehiago tartean sartu nintzen. Lehendabizi Bilbon egiten genuen eta gero, Donostia eta Gasteizera zabaldu genuen. Hasiera batean komiki munduan zentratzen nintzen, baina laster irudigintzak liluratu ninduen. Gainera, *bilbao24horas* webgunean laguntzen dut. Betidanik zoratu didate elkarrizketak, baina ez promoziozkoak, baizik eta jardunbideak birpasatzen dituztenak. Neure semea jaio zenean, lehen marrazten nuen adina ezingo nukeela ikusiz, eremuarekin kontaktuan jarraitzeko espazio bat bilatu nuen. Horrela hasi nintzen webgunean kolaboratzen. Bitxia bada ere, alderdi hori neure egile lana baino gehiago aintzat hartzen zelaz jabetu nintzen.

Lehenengo galderan argi utzi duzu Euskadiko Irudigileen Elkarte Profesionalaren parte zarela, baina, zer da eta zer egiten du Elkarteak?

Elkarte irudigileen elkargunea izaten saiatu ez ezik, ogibideari ikusgarritasuna gizarte barruan ematen saiatzen da ere. Horretaz gain, Elkarteak lanbidean interes gutxien sustatzen duen alderdiz, baina funtsezkoenetako bati erantzuna ematen arduratzen da: egileen eskubideak, fakturak, langile autonomoak... Hasiberrietan eta beste jarduerak aldi berean egiten dituzten pertsonen artean maiz azaltzen diren galderak dira.

Zeure aburuz, Euskadin Irudigileen Elkarte bat egotearen funtsa non al dago? Garrantzitsua da alorrean indar gehiago izateko bidea ematen duelako; lanbideak dituen arazoak beste espazioetan eta erakundeetan ikustea ahalbidetzen duelako eta arazoan aurrean batasuna edukitzeko aurrera ematen duelako. Elkarteak diru-laguntzen eta kurtsoen bitartez hezitzeko nahia du. Eskakizun handiko ekintzak dira, eguneroko gaiak uztartzen dituztenak; aurrekontu bat nola egin edota zure book-a nola prestatu. Bestalde, diru-laguntzek irudigintzaren ospe handiko pertsonoekin praktikan egitea ahalbidetzen ditu, adibidez, **Pablo Auladell** edota **Javier Olivaresekin**.

Hala eta guztiz ere, Erakundearen erroa euren kideen partaidetza bilatzean datza. Erakundearen beraien ogibidez arduratzen diren eta hura hobetzen jarraitzeko batzen diren pertsona talde bat dela pentsatzea gustatzen zaigu.

Dolmen edo Astiberri bezalako argialetxe ospetsuetan argitaratu arren, fanzine eta irabazi asmorik gabeko ekimenetan argitaratzen jarraitzen duzu. Are eta gehiago, zure azken lanen artean, autoediziogatik dekantatu zinen. Irudigintzaren etorkizuna autoediziotik pasa behar dela deritzozu? Komikiak egitea gustatzen zaizkit eta hauek argitaratzean, oso zaila. Argialetxei, lehenengo, eta gero, irakurleei interesatzen zaien proiektu bat eraikitzea, oso zaila da. Bidean zehar zeure bururako atsegingarriak diren sakrifizio asko egiten dituzu. Horrek zera planteatzera eramaten zaitu; gauzak nahi duzun moduan egin nahi badituzu, onena, zeuk egitea da. Gaur egungo merkatuak orri askotako liburukiak eskatzen

dituzte, ez dago pixkanaka-pixkanaka lan egiteko edota zeure bidea aurkitzeko istorio motzentzako tokirik. Egindako tebeo-etan lehertuta bukatu nuen erantzun epel bat lortu ahal izateko. Urteetako lanaz ari gara, beraz, neure lehentasunak birplanteatzen ditut eta nahi ditudan komikiak eta neure erritmoan egitea erabakitzen dut. Horrela jaio zen *Morirse en Bilbao*, geure kasa egindako tebeo-a, presiorik gabe, izugarri ondo pasa genuenarekin.

Autopublikazioaren arloan dauden aukerak asko poztzen naute. Formatu esperimentalentzat eta hasiberriei aukerak emateko plataforma izan daitezkeela pentsatzen dut. Baliabideak demokratizatu dira eta orain, argitaraldi txikiak egin daitezke prezio onargarri baten truke. Edota argitalpen digitalera jo eta gastuak saihestu, orain dela urte batzuk pentsaezina zen. Ez dut uste [EO: argitalpen digitala] irudigintza tradizionala ordezkatzeko duenik, baina aukera berriak lortzeko eraginkor bat dira.

